

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Marka da gero!

Begien aurrean daukat BBK Live 2009ko iragarkia. The Gaslight Anthem egongo direla ikustean poztu-edo egin naiz. Geroxeago, dena hain “makro” eta hain BBK izango dela gogoratzeak ilusio amiñi bat zapuztu dit, zer egingo zaio. Jaialdien aro eguzkitsua heldu bitartean, baina, badago zer ikusia kontzertu aretoan abaroan. Plateruenan, esaterako. Halaxe egin genuen larunbat zital hartan. Elurak Lekunberri setiatu izanagatik autoa hartzeko gogoia bildu eta hantxe abiatu ginen lagunak, *kitaniebesaren* atzetik Durango aldera, ttar-ttar. VANS Tour-erako sarrerak hartuak genituen eta ez zegoen hutsegiterik: No Use For A Nameren melodiak bertatik bertara entzun nahi genituen. Nik ez dakit noiz eta nola utzi zion punk-rock melodikoak punk eta rock huts izateari; zeinen merke –edo ez– asimilatu duen zapatilla, gerriko eta abarren eskaparate izan behar hori. Ez naiz ni punkaren ortodoxia defendatu-zale, baina horretaz denaz abstraditzen xahutu nituen indar gehienak eta aitor dut kosta egin zitzaidala musikaz era naturalean gozatzea. Mozorro festara doala ez dakien gajoa sentitu nintzen instant batez. Halere kontzertua ez zen gaizki egon. Hori bai, gorriak ikusi genituen etxera bueltatzeko, kazkabarra, txingorra eta bere sinonimo guztiak irten baitzitzaizkigun errepidera.



ALEX LARRETXI

Hurrengo asteburuan Madrilera egin genuen, igandean Kings Of Leon ikusteko sarrerak patriketan (kutxa.net-en erosiak). Azken orduan bertan behera geratuko zen kontzertua, baina artean ez genekien eta, eguraldia lagun, kaleetan barna galdu ginen, inguruaren inbentarioa mentalki taxutzen genuela: kainoi urtuz egindako lehoiak Kongresuan, jatekoen arragoa Lavapiesen, museo erdi-bizi eta erdi-hilak, neoizko argiei darien erakarpen dekadente hori. Gran Via gurutzatzea ere egokitu zitzaigun eta antzokietako kartel erraldoiek zekartena irakurri genuen: Sara Baras, El Arte, Nacho Cano –“*el de Mecano*”–. Azken honen musikala Teatro *Häagen-Dazs* Calderón-en estreinatuko omen zuten. Izoztuta geratu ginen –nola ba?– antzokiaren izena ezin sinetsiz. Gaeuz, hankak neke-neke eginda, Malasañara gerturatu ginen garagardotan hasteko. Afixetan hainbat artisten agendak: urlia *Heineken* aretoan, sandia Espacio *Movistar*-en... *Marka da gero!*

Mezenazgoari buruz iritzi koherente bat osatu nahian, loak hartu ninduen bueltako autobusean. *Petronor-Kafe* Antzokiarekin amesgaiztotan nebilela esnatu ninduen Bilboko estazioko azantzak.

Esan gabe doa, nire elkartasuna Kafe Antzokiko lagunei. ■

«
Petronor-Kafe Antzokiarekin
 amesgaiztotan nebilela esnatu
 ninduen Bilboko estazioko
 azantzak
 »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Dei zenbait jaso ditut aste honetan. Joan deneko dozena urte deitzaileen berririk ez,

eta orain izan dut aukera beraiekin hitz hotz batzuk gurutzatzeko telefonoz. Ez didate nire osasunaz edota nire bizimoduaz arduraturik daudelako telefonatu, ez, denek ere galdera bera egin didate, EAEko hauteskundeetara aurkezten naizen jakin nahi zuten. Gipuzkoako Aralar alderdiaren zerrendan ikusi dute nire izena eta lehen abizena, aitarena alegia. Bigarren abizena, amaren Lertxundi ezagutu izan bazuten ez zidaten deitu ere egingo. Lehen deitzaileari argitu diot

Telefono

bere iluna sano-sano, besteei ez bezala, hauei hitz egiten utzi diet eta telefonoa itzali dut esplikaziorik eman gabe, ni ez nindute-

la Aralarreko hautagaia esan gabe. Badakit horietako baten nahasiak bide egin duela, ni ongi ezagutzen nauen bati txutxumutxutzat kontatu baitio telefonoz, honen argitasunik izan gabe, ulertu baitu nire adarjotzea. Nire lagun hau argia izaki, eta *telecinco* kulturaduna bere katuxukaldean utzi du. Merezita. Gehien hase-rretu nauena, pare baten tonua izan da, zorduna banindute bezalakoa. Argi geratu zaidana zera da, ez dute ARGIA irakurtzen. ■